



Leioa
KULTURA

urtarrila.martxoa
ENERO.MARZO/2024

"Tierra de nadie"
Doos Colectivo

Kultur Leioa Leioako Udalaren Kultura Saileko zentro publikoa da, kultura eta sorkuntza sustatzeko, babesteko eta zabaltzeko.

Kultur Leioa es un centro público del Área de Cultura del Ayuntamiento de Leioa que promueve, apoya y difunde la cultura y la creación.



gida
GUÍA



ANTZERKIA
Teatro



DANTZA
Danza



MUSIKA
Música



FAMILIARRA
Familiar



ZINEA
Cine



IRAUPENA
Duración



HIZKUNTZA
Idioma



TESTURIK GABE
Sin texto



**GOMENDATUTAKO
ADINA**
Edad recomendada



KLUN
Clown



GAZTE ORDUA
Hora joven



DENONTZAT
Todos los públicos



**LEKU KOPURU
MUGATUA**
Aforo limitado



**EKINTZA
OSAGARRIA**
Actividad paralela



**DOAN KULTUR
LEIOAKO
LAGUNENTZAT**
Espectáculo gratuito para
Amig@s de Kultur Leioa



© Gerardo Sanz



CONSTELACIONES

Nacho Vilar Producciones (Murcia)

Bikote batek barbakoa batean egin zuen topo, lagun-min egin ziren, eta handik denbora batera elkar ikusi zuten berriro.

Bazirudien gustuko zutela elkar, bazirudien haien artean zerbait zegoe-la. Haien arteko harremana hazi egin zen, edo ez, egia esanda, inoiz ez ziren elkarrekin atera barbakoa hartatik, mutila ezkondata baitzegoen; edo, egia esan, harremana hautsi egin zen, neska ez zitzaiolako leiala izan; edo betiko maitatu zuten elkar, mozkoturik, betiko topo egin zuten gau haren ondoren.

Bi antzezle, espazio soil eta aratz batean. Argi batzuk, eta haien koloreek tokiz aldatzeko edo ekintza batera itzultzeko aukera ematen. Joko xume eta ikusgarria, soinu-espazio limurtzaile batek ematen dio azken ukitua. Milaka istorio eta agertoki posible biltzen dituen istorioa.

URTARRILAK 19 ENERO

Auditorium // 20:30 // 10 €

EGILEA AUTOR

Nick Payne

ZUZENDARITZA ETA ESPAZIO ESZENIKOA

DIRECCIÓN Y ESPACIO ESCÉNICO

Jorge Fullana

ANTZEZLEAK INTÉRPRETES

Sandra Roma, David Terol

KEINU-HIZKUNTZA LENGUA DE SIGNOS

Laura García

ARGIZTAPENA ILUMINACIÓN

José Antonio Villegas

+ INFO

www.nachovilar.com/constelaciones



Una pareja se encuentra en una fiesta, intiman y se vuelven a ver tiempo después.

Parece que se gustan, parece que hay algo entre ellos, su relación crece. O no, en realidad nunca salieron juntos de esa barbacoa porque él estaba casado o en realidad se rompió la relación porque ella le fue infiel o se amaron eternamente después de aquella noche en la que borrachos miraron las estrellas.

Constelaciones es una historia que contiene miles de historias y escenarios posibles.



URTARRILAK 21 ENERO

Auditorium // 18:00 // 6 €

ZUZENDARITZA DIRECCIÓN

Iker García

DRAMATURGIA DRAMATURGIA

Itziar Fragua, Marta Álvarez del Valle, Jon Koldo Vázquez

ANTZEZLEAK INTÉRPRETES

Itziar Fragua, Marta Álvarez del Valle, Jon Koldo Vázquez

TXOTXONGILOAK MARIONETAS

Itziar Fragua, Marta Álvarez del Valle

MUSIKA MÚSICA

Sandra Fdez. Ahuirre, Roberto Castro, David Nanclares

+ INFO

www.kontukontari.eus



ZIMURREN ARTEAN KONTU KANTARI

Cía. La Enana Naranja (Euskadi)

Ma nahiko lanpetuta dabil azkenaldian, eta aitona Peioren etxean utzi ditu haurrak. Nanuk eta Granuk arretaz entzungo dituzte aitonak zimurren artean ezkutatzen dituen istorioak, baina Kanutok kontakizuna zaunkaka etengo du: etxea ikuskatzen aritu da eta biraiton-amonen oroitzapen asko aurkitu ditu.

Belaunaldi zaharrei egiten diegun homenaldia da hau. Hamar abesti berri, jakinduriaz eta maitasunez beteak ume, guraso eta aiton-amonak dantzatu eta abestu ditzaten.

Ma anda últimamente bastante ocupada y ha dejado a los niños en casa del abuelo Peio. Nanu y Granu escucharán con atención las historias que esconde su abuelo entre arrugas, pero Kanuto interrumpe el relato a ladridos: ha estado inspeccionando la casa, y ha encontrado muchos recuerdos de los bisabuelos.

Este es un homenaje que hacemos a las viejas generaciones. Diez nuevas canciones llenas de sabiduría y de amor, para que niños, padres y abuelos bailen y canten.



URTARRILAK 26 ENERO

Auditorium // 20:30 // 10 €

ABESLARIAK INTÉRPRETES

Iñaki García Uribe (ikertzailea, kontalaria), Gontzal Mendibil (ahotsa, gitarra), Iñaki Dieguez (akordeoia-bandoneoia), Ainhoa Tabuyo (bigarren ahotsa)



GORBEIA

Gontzal Mendibil eta Iñaki García Uribe (Euskadi)

KONTUAK ETA KANTUAK ikuskizuna gure basoetan sortu ziren antzinako kondairen irakurketan eta interpretazioan datzan ekitaldia da. Kondaira horietako batzuek sei mende luzeko historia dute. Iñaki García Uribek euskal mendi sakratuari buruzko bere liburuetako batetik ateratzen ditu.

Gontzal Mendibil Zeanuriko kantautoreak interpretatzen dituen kantuekin uztartuko dira kondaira horiek, hori guztia Gorbeia lekuko dela. Arabako mendi gailur harroenaren aurrean gaude eta berari eta bere kulturari eskaini diegu lan hau.

Gontzal Mendibil (idazlea, musikaria, filosofoa eta aktorea) eta Iñaki García Uribe (ikertzailea eta etnografoa, Aranzadi Zientzia Elkarteak kidea), abestu eta XXI. mendera arte ahoz aho iritsi diren kontaketa herrikioiak kontatuko dituzte, hau da, gutxienez euskaldunen 11 belaunalditatik igaro diren kontakizunak; zer kontatuko digute kondaira horiek, zer da egiazkoa?

Ikuskizuna amaitzean, guztiok elkarrekin abestuko dugu BAGARE "euskal ereserkia", Gontzalek eta Bittor Kapanagak (euskal Sokrates delakoak) 1974ko abenduan ondu zuten abestia eta Gontzalek, lehen-dabizikoz, Gorbeia lur-azpian interpretatu zuena, Mairulegorretako Euskal Jaian, 1975eko uztailaren 31n.

El espectáculo KONTUAK ETA KANTUAK es un acto consistente en la lectura e interpretación de antiguísimas leyendas que se fraguaron en nuestros bosques, algunas de ellas con más de seis siglos de historia. Iñaki García Uribe las extrae de uno de sus libros de temática sobre la montaña sagrada vasca.

Se fusionan con canciones interpretadas por el cantautor de Zeanuri, Gontzal Mendibil, todo ello con Gorbeia como testigo. Estamos ante la cumbre más alta de Araba y a ella y a su cultura dedicamos este trabajo.

Gontzal Mendibil (escritor, músico, filósofo y actor) e Iñaki García Uribe (investigador y etnógrafo miembro del departamento de la Sociedad de Ciencias Aranzadi), cantarán y contarán narraciones populares llegadas al siglo XXI de boca a oído durante, por lo menos, 11 generaciones de vascos y vascas, ¿qué nos cuentan esos cuentos, qué hay de real en ellos?

Al terminar el espectáculo todos juntos entonaremos el "himno vasco" BAGARE, canción que compuso Gontzal y Bittor Kapanaga (el Sócrates vasco) en diciembre de 1974 y que interpretó por vez primera bajo el suelo y la tierra de Gorbeia, en la Euskal Jaia de Mairulegorreta el 31 de julio de 1975.



DEL COLOR DE LA LECHE

Tanttaka Teatroa (Euskadi)

Mary, bere familiarekin 1830eko nekazal giroko Ingalaterrako baserri batean bizi da. Ilea esnearen kolorekoa du eta hanka batean arazo fisikoa zuela jaio zen. Baina, familiaren kondentatik ihes egitea lortzen du, bikarioaren emaztea zaintzeko neskame gisa lan egitera bidaltzen dutenean. Orduan izango du irakurtzen eta idazten ikasteko aukera. Liburuetan «marra beltz pila bat besterik ez» ikusteari utziko dio. Itzalen mundua uzten duen heinean, argiak are itsugarriagoak izan daitezkeela ohartuko da, eta horregatik, Maryri bere istorioa kontatzeko ahalmena baino ez zaio geratuko.

Leyshonek, edertasun tragiko batez, mikrokosmos ikaragarri bat irudikatu du, pertsonaia bereziz bete; hori guztia, urtaroen eta baserriko lanen konpasean isurtzen den ingurune bukoliko batez inguratua, eta Maryren ahaleginari esker, inozentzia urragarritz bizia hartuko du, hartutako patuari buruzko testigantza idatzi bat utziz uko egiteko aukerarik gabe.

OTSAILAK 2 FEBRERO

Auditorium // 20:30 // 10 €

EGILEA ETA MOLDAKETA AUTOR Y ADAPTACIÓN

Nell Leyshon

ITZULPENA TRADUCCIÓN

Mariano Peyrou

ZUZENDARITZA ETA ESZENOGRAFIA

DIRECCIÓN Y ESCENOGRAFÍA

Fernando Bernués

ANTZEZLEAK INTÉRPRETES

Joseba Apaolaza, Miren Arrieta, Mireia Gabilondo, Aitziber Garmendia, Jon Olivares, Jose Ramón Sorozio

JANTZIAK VESTUARIO

Ikerne Giménez

+ INFO

www.tanttaka.eus



Mary, una joven de quince años que vive con su familia en una granja de la Inglaterra rural de 1830, tiene el pelo del color de la leche y nació con un defecto físico en una pierna, pero logra escapar de su condena familiar cuando es enviada a trabajar como criada para cuidar a la mujer del vicario. Entonces, tiene la oportunidad de aprender a leer y escribir, de dejar de ver «sólo un montón de rayas negras» en los libros. Conforme deja el mundo de las sombras, descubre que las luces pueden resultar incluso más cegadoras, por eso, a Mary sólo le queda el poder de contar su historia.

Leyshon ha recreado con una belleza trágica un microcosmos apabullante, poblado de personajes singulares; todo ello, enmarcado por un entorno bucólico que fluye al compás de las estaciones y las labores de la granja, que cobra vida con una inocencia desgarradora gracias al empeño de Mary de dejar un testimonio escrito del destino adquirido, al cual ya no tiene la posibilidad de renunciar.

SLIDE



SLIDE (Madrid)

Ikaragarria da SLIDE Funk&Soul taldea. Denek aipatzen dute, eta azken aldiko errebelazio-taldea izaten ari da.

Taldea Chuma Segurak gidatzen du, herrialde honetako gitarrista eta musikagile onenetakoa, eta luxuzko musikariek osatzen dute. 9 artistak partekatuko dute agertokia, azken albuma, STORM, aurkezteko, pasioz, magiaz eta dibertimenduz gainezka. Ziurtatuta dago festa!

Chumak, bere SLIDE bandarekin, musika-birtuosismoko konbinazio aparta ekarriko digu; soul, blues, funk eta rockez blaitutako berezko kantu ederrak, eta harrituko zaituzten Hey Jude (The Beatles) edo Redemption Song (B. Marley) abestien bertsio ikusgarriak.

Nazioarteko musikari bikainak dira, Tower of Power, Incognito edo Aretha Frankliren mailakoak. Gau hau esperientzia musikal paregabea eta ahaztezina izango da!!

Aukera galduko duzu? Ez esan abisatu ez genizunik...

OTSAILAK 16 FEBRERO

Auditorium // 20:30 // 10 €

ABESLARIAK INTÉRPRETES

Chuma Segura (gitarra, hitzak, konposaketa, moldaketak), Jorge Pérez "Patax" (bateria, hitzak), Carlos Sánchez de Medina (baxua), Gabriel Peso (teklatuak), Raúl Gil (tronpeta), José Vera Bello (saxo tenorra), Roberto Bazán (tronboia), Erin Corine (ahotsak), Deborah Ayo (ahotsak), Milena Brody (ahotsak), Lady Pepper (ahotsak)

+ INFO

www.chumasegura.com/slide/



Grandes artistas de su instrumento dirigidos por el extraordinario guitarrista Chuma Segura y con la inestimable colaboración de uno de los grandes percusionistas y baterías del panorama internacional, el gran Jorge Pérez ("Patax") nos muestran su virtuosismo musical con un repertorio de excelentes temas propios de Chuma inspirados en el funk, el soul y el blues, por artistas como Incógnito, Tower of Power o Aretha Franklin. Música con raíces negras que combinan con sorprendentes versiones de clásicos como Hey Jude de The Beatles, Redemption Song de Bob Marley o Chill out de C. Santana.

¿Te lo vas a perder? No digas que no te avisamos.



ANDEREÑO

Anita Maravillas (Euskadi)

Andereñoa ausarta, trebea eta atsegina da. Haurren gaitasunetan sinesten du, guztien gaitasunetan. Andereñoak eta haren ikasleek eskola eder bat eraiki dute elkarrekin, basoan, abere guztientzako lekua duen eskola bat.

Gure andereñoak gehien maite duen hitza askatasuna da, eta, beraz, bere ikasleak askatasunez haztea nahi du. Zoritxarrez, helduek gerra bat hasiko dute, eta horrek amestutako eskola, maitasunetik eta elkar zaintzetik eraikitako eskola, atzean uztera behartuko ditu gure protagonistak. “La Maestra”ren historia aske eta zoriontsu izateko saiakera zoro eta ederra da. Historia honetan zehar andereño ausart haien hitzek bidaiatuko dute eta belarrira xuxurlatuko digute aske izateko lehen baldintza horretan saiatzea dela.

OTSAILAK 18 FEBRERO

Auditorium // 18:00 // 6 €

IDEIA IDEA

Miren Larrea

ZUZENDARITZA DIRECCIÓN

Iván Alonso

ANTZEZLEAK INTÉRPRETES

Maren Basterretxea, Valentina Raposo

TXOTXONGILOEN DISEINUA ETA ERAIKUNTZA

DIRECCIÓN Y CONSTRUCCIÓN DE TÍTERES

Valentina Raposo

JATORRIZKO MUSIKA ETA BERTSIOAK

MÚSICA ORIGINAL Y VERSIONES

Fran Lasuen

+ INFO

www.anitamavillasteatro.blogspot.com



La maestra es valiente, hábil y simpática. Cree en las capacidades de los niños y las niñas, en las de todos y todas. La maestra y su pequeña clase han construido juntos una hermosa escuela, una escuela en el bosque con cabida para todos los animales.

La palabra más querida por nuestra maestra es la libertad, por lo que quiere que su clase crezca libremente. Desgraciadamente, los mayores comienzan una guerra que obligará a nuestros protagonistas a dejar atrás su soñada escuela, una escuela construida desde el amor y el cuidado mutuo. La historia de “La Maestra” es un intento loco y hermoso de ser libre y feliz. A través de esta historia viajan las palabras de aquellas valientes maestras y nos susurran al oído que la primera condición para ser libre es intentarlo.



¡GUAPA!

El mono habitado (Euskadi)

XX. mendearen hasieran, fenomenoei buruzko ikuskizunek arrakasta handia izaten zuten; ikusleek ordaindu egiten zuten “munstro itxurako izakiak” ikustearren truke. Orain, izaki horietako batzuk igoko dira agertokira: Mary, “munduko emakumerik itsusiena” zela esaten ziotena, eta emakume bizarduna. Beren historia kontatuko digute emakume horiek, barre egiten eta gozatzen zuten emakumeak zirela, desirak zituztela eta grinak pizten zituztela.

Pertsonaia historikoen, banako arrotzek eta antzezleek berek hartuko dute hitza, edertasunaz (agerikoaz eta ezkutukoaz) hitz egiteko.

Ikusten ez den edertasunari buruzko ikuskizuna, pertsonak ikusi gabe pertsonen begiratzen dieten pertsonen buruzko ikuskizuna, ezberdintasunari eta berdintasunari buruzkoa.

OTSAILAK 23 FEBRERO

Auditorium // 20:30 // 10 €

ZUZENDARITZA DIRECCIÓN

El mono habitado

TESTUA TEXTO

Raúl Camino

ANTZEZLEAK INTÉRPRETES

Begoña Martín Treviño, Raúl Camino

ESZENOGRAFIA ESCENOGRAFÍA

Fernando Pérez

BIDEOA VÍDEO

Joakim Ward

+ INFO

www.elmonohabitado.com/team/guapa



A principios del siglo XX los espectáculos de fenómenos tenían gran éxito, el público pagaba por ver “criaturas monstruosas”. Ahora uno de estos seres, Mary, a quien anunciaban como “la mujer más fea del mundo”, y la mujer barbuda, vuelven a subirse al escenario para contar su historia, para descubrirnos que eran mujeres que reían y disfrutaban, que tenían deseos y despertaban pasiones.

Personajes históricos, individuos extraños y los propios intérpretes, van tomando la palabra para hablar de la belleza, la evidente y la oculta.

Un espectáculo sobre la belleza que no se ve, sobre personas que miran a personas sin verlas, sobre diferencia e igualdad.



MARTXOAK 1 MARZO
Auditorium // 20:30 // 12 €

EGILEA AUTOR
David Desola

ITZULPENA TRADUCCIÓN
Martin Agirre

ZUZENDARITZA DIRECCIÓN
Begoña Bilbao Lejarzegi

ANTZEZLEAK INTÉRPRETES
Iker Galartza, Zuhaitz Gurrutxaga

ESZENOGRAFIA ESCENOGRAFÍA
Asier Sancho Senosiain

+ INFO
www.txalo.com/movie/almacenados/



ALMACENADOS

Txalo Producciones (Euskadi)

Erretreta hartzeko dagoen arduraduna (Iker Galartza) eta bere lanpostuan ordezkatzeko duenak (Zuhaitz Gurrutxaga), ezinbestean, bost egunez lantokia partekatuko dute, itxuraz deus gertatzen ez den al-mazen huts batean.

Erlojuaren tik-tak okerra, bi ezezagunen arteko isilune deserrosoa, esperoan egotearen amorrazioa, bi pertsonaien arteko gatazka eta gezur handi baten zama.

Baldintza guzti horien baitan, bi langileen arteko harremana estutzen joango da eta amankomunean daukaten zera horrek lotuko ditu betirako: galtzaileen kontzientzia.

David Desola idazle kataluniarrak atondu duen komedia zorrotz eta garratz honek lan munduan pairatzen den esplotazioaz eta kapitalismoaz hausnarketa egiten du. Antzerki-lan honek Hermanos Machado Saria jaso zuen.

Un encargado a punto de prejubilarse y el hombre destinado a sustituirle comparten cinco jornadas en un mismo lugar: un enorme almacén vacío donde aparentemente nunca ocurre nada.

El paso del tiempo en un reloj desajustado, el incómodo silencio entre dos desconocidos obligados a compartir un espacio, la inmovilidad del almacén, la desesperación de la espera, el conflicto entre ambos personajes y el peso de una gran mentira.

Todo eso irá forjando entre ellos un vínculo inquebrantable, algo que les unirá para siempre: la conciencia de los perdedores.

Una ácida comedia sobre la explotación laboral y el capitalismo por la que David Desola, el autor del texto, obtuvo el Premio Hermanos Machado.



YERMA

La Dramática Errante (Euskadi)

BERA bilbotar artista ospetsua da. Haren senarra, negozio-gizon arrakastatsua. Haren arreba, bizitzak harrapatutako emakumea. Haren ama, sekula besarkatu ez zuen pertsona hori... Eta haren bikotekide ohia, ama izateko aukera izan zen norbait.

Eta BERA bezalakoak dira emakume arrakastatsua haien lanetan, modako jatetxeetan afaltzen dute, herrialde exotikoetara bidaiatzen dute, jaialdietan herabetasuna galtzen dute, Iphone bat dute eta gizarte-zirkulu inbidiagarriak dituzte. BERA; emakume normalak, independenteak, zein bere bikotekidearekin, itxurazko ahalduntzearekin, ametsekin eta burutu gabeko desira bakar batekin: amatasuna.

Haren ikuspegi feministak ez zion inoiz planteatzen utzi adin batetik aurrera zaila zela ama izatea, eta orain... gero eta handiagoa da presioa, eta BERAK inoiz nahi izan ez zuen zerbait nahi du, gatazka biologiko eta emozional saihestezina planteatzen duen zerbait. Horixe da YERMA hau. Naturala eta ederra dena obsesibo eta mingarri bihurtzen da emakume horrengan. Emakume hori, zeinaren baitan DESIRA maitasuna aurretik eramateko gai den.

MARTXOAK 6 MARZO

Auditorium // 20:30 // 6 €

ZUZENDARITZA ETA DRAMATURGIA

DIRECCIÓN Y DRAMATURGIA

María Goiricelaya

ZUZENDARI LAGUNTZAILEA AYUDANTE DE DIRECCIÓN

Eider Zaballa

ANTZEZLEAK INTÉRPRETES

Ane Pikaza, Aitor Borobia, Loli Astoreka, Leire Orbe, Unai Izquierdo

ESZENOGRAFIA ESCENOGRAFÍA

David Alkorta

ITZULPENA TRADUCCIÓN

Patxo Telleria

+ INFO

www.ladramaticaeerrante.com/yerma/



ELLA es una reputada artista bilbaína. Su marido, un exitoso hombre de negocios. Su hermana, una mujer atropellada por la vida. Su madre esa persona que nunca la abrazó... Y su ex alguien con quien ser madre fue una posibilidad. Este es el escenario de ELLA, nuestra YERMA.

Quizá sea un sacrilegio plantear una YERMA sin una palabra de Lorca, pero ésta contiene las palabras de todas aquellas mujeres que hoy se enfrentan a la imposibilidad de tener descendencia. Porque son muchas, aunque nadie hable de ellas. Y son como ELLA: mujeres exitosas en sus trabajos que cenan en restaurantes de moda, viajan a países exóticos, se desmelenan en festivales, tienen un Iphone y círculos sociales envidiables. ELLA; mujeres normales, independientes, con sus parejas, su aparente empoderamiento, sus sueños y un único deseo no concedido: el de la maternidad.

Su versión feminista nunca le dejó plantearse que a partir de cierta edad era difícil concebir y ahora... la presión no para de crecer y ELLA quiere algo que nunca quiso, algo que plantea un conflicto biológico y emocional ineludible. Eso es esta YERMA. Esa mujer donde lo natural y bello se vuelve obsesivo y doloroso. Esa mujer donde el DESEO es capaz de llevarse por delante el amor.



© Luis Antonio Barajas



MAMUT

Markeliñe (Euskadi)

Duela milaka urte, historiako eta munduko tokiren batean, giza-talde bat otso taldeez inguratuta dago, eta mamut handi baten hezur arrastoen ondoan babesten da. Baina hezurdura abandonatu handi horretan ez dago haragi arrastorik ahora eramateko eta gosea baretzeko.

Inguratuta eta gosetuta, guztiak amaiera penagarria iragartzen du. Baina muturreko egoera horretan patu tragikoari izkin egiten dion zerbait gertatzen da. Ezohikoa beste edozein animaliaarentzat. Horrela, besteen harridurarako, gizakietako batek hezur lehor eta ahitu bat hartu eta hezur hori estaltzen duen haragi zapoetsua dastatzen eta mastekatzen ari dela simulatzen du. Fartsa, fikzio edo antzerki keinua. Baina beste errealitate batzuk irudikatzen irrika indartsua adierazten duena. Eta, denboraren poderioz, ahalmen horrek planetako animaliarik boteretsuena eta ustekabekoena bihurtuko du.

MARTXOAK 10 MARZO

Auditorium // 18:00 // 6 €

ZUZENDARITZA DIRECCIÓN

Markeliñe

ANTZEZLEAK INTÉRPRETES

Nerea Martínez, Maite Bayón, Fernando Barado

ESZENOGRAFIA ESCENOGRAFÍA

Marco Sotes

JANTZIAK VESTUARIO

Maite Hernández

MUSIKA MÚSICA

Xabier Zeberio

+ INFO

www.markeline.com/espectaculos/mamut



“Mamut” es una creación original de Markeliñe para público familiar acerca del proceso evolutivo humano. En un paleolítico imaginario, unos homínidos se refugian de la amenaza de los lobos junto a los huesos de un mamut. Y en su lucha por la supervivencia deciden entenderse a pesar de sus diferencias. De pronto, surge un primer gesto de farsa, teatro o ficción, y los huesos se convierten en herramienta para la creatividad y el juego donde la imaginación genera descubrimientos como el lenguaje, el arte, la ternura, el símbolo, la consciencia del tiempo o las posibilidades del fuego...

“Mamut” nos habla, sin palabras, de creatividad, de cómo hemos llegado hasta aquí pero, sobre todo, del valor de la cooperación.



TIERRA DE NADIE

Doos Colectivo (Euskadi)

‘Inoren lurraldea’ da ezein herrialderena edo ezein pertsonarena ez den lurraldea. Ideia horretatik abiatuta, gorputz baten eta bestearen arteko espazioa zurea eta nirea ez den baina aldi berean gurea dugun espazio gisa planteatzen dugu. Leku hori esploratzea proposatzen dugu, mundu onirikoa, baina gauza errealez egina. ‘Ez-leku’ bat da, ozeanoaren sakonak, inguratzen gaituen naturak eta barruan garamatzanak eraginda, norberaren sakontasunerako bidaiaren metafora. “Tierra de nadie” obrak hasierei eta amaierai buruz hitz egiten du, dantzari buruz, gorputz bat osatzen duten gorputz ezberdinei buruz eta horien arteko harremanei buruz; idatzi gabeko arauari buruz hitz egiten du, bazterrei eta ertzei buruz, topaketei eta desadostasunei buruz; azalei buruz hitz egiten du, dena emateari buruz, ozeanoari, apneei eta lasterrei buruz, alde egiteko eta ez itzultzeko gogoari buruz; mugei eta eusteei buruz hitz egiten du. Baina, oroz gain, “Tierra de nadie” obrak gorputzaz, gorputzaz eta bere izaeraz hitz egiten du, eta gorputzen arteko politikaz. Izan ere, nork du gorputza bere?

Tierra de nadie gauza asko da: dantza, ahotsa, zuzeneko musika, natura, atmosfera poetikoak, gorputz bitxiak, soinu oroitarazleak eta animaliak ere badiren emakumeak.

MARTXOAK 15 MARZO

Auditorium // 20:30 // 10 €

ZUZENDARITZA ETA TESTUAK

DIRECCIÓN Y TEXTOS

Eva Guerrero

KOREOGRAFIA ETA ANTZEZLEAK

COREOGRAFÍA E INTÉRPRETES

Garazi Lopez de Armentia, Eva Guerrero

MUSIKA SORKUNTZA ETA MUSIKARIAK

CREACIÓN MUSICAL E INTÉRPRETES

Carla Sevilla, Yolanda Bustillo

ESZENOGRAFIA ESCENOGRAFÍA

Silvia Corral

JANTZIAK VESTUARIO

Azegiñe Urigoitia, Andoni Beitia

+ INFO

www.dooscolectivo.es



Una tierra de nadie es un territorio que no pertenece a ningún país o persona. Partiendo de esta idea, planteamos el espacio que hay entre un cuerpo y otro como un espacio que no es ni tuyo ni mio pero a la vez nos pertenece. Proponemos una exploración a ese lugar, que es un mundo onírico pero que está hecho de cosas reales; es un no-lugar, influenciado por las profundidades del océano, la naturaleza que nos rodea y la que nos habita dentro como metáfora del viaje hacia la profundidad de una misma. Tierra de nadie habla de principios y finales, de distancias, de los distintos cuerpos que forman un cuerpo y las relaciones entre ellos, habla de las reglas no escritas, de márgenes y orillas, de encuentros y desencuentros, habla de pieles, de dejarse la piel, del océano, las apneas y las corrientes, de las ganas de irse y no volver, habla de los límites, las contenciones. Pero ante todo, Tierra de nadie habla del cuerpo, del cuerpo y su naturaleza y de la política entre los cuerpos. Porque a quién le pertenece el cuerpo.

Tierra de nadie es danza, voz, música en directo, naturaleza, atmósferas poéticas, cuerpos extraños, sonidos evocadores y mujeres que también son animales.



MARTXOAK 22 MARZO

Auditorium // 20:30 // 10 €

ABESLARIAK INTÉRPRETES

Joshua Edelman (pianoa, zuzendaritza), Xabi Arakama (trikitixa, ahotsa), Imanol Intxausti (trikitixa, ahotsa), Iñaki Larrañaga (ahotsa, panderoa), Ander García (kontrabaxua), Lara Sagastizabal (ahotsa), Fabián Reyes (kongak), Julen Edelman (kontrabaxua, pianoa, ahotsa), Ander Edelman (kontrabaxua, pianoa, ahotsa), Cristina Santolaria (ekoizpena, sorkuntza kulturala)

+ INFO

www.joshuaedelman.com



JOSHUA EDELMAN & XABI ARAKAMA

Traditions & Tradizioak (Euskadi)

Traditions & Tradizioak Euskaditik, Europako beste leku batzuetatik, Estatu Batuetatik eta Karibetik etorritako hainbat musika-kulturen arteko topaketa da. Mestizaje-giro zoragarria sortzen dute agertokian jazzak, bluesak, euskal folkloreak, perkusio afro kubatarak eta beste latitude batzuetako erritmoek, hain modu naturalean, non islatu ahal izango duzun musika komunikaziorako, ideiak trukatzeko eta pertsonen, hizkuntzen, kulturen eta herrialdeen arteko konexiorako benetako bitarteko alternatiboa delako sentsazioa.

Hizkuntzak musikarekin nahasten dira, eta, errespetutik eta enpatiatik abiatuta, kultura- eta ulermen-zubi berriak sortzen laguntzeko beharri buruz hitz egiten dute. Ezberdinen arteko elkarrizketa emankorra gertatzen dela sentituko duzu, eta musika herrialde baten espirituaren bilakaeraren isla bizi gisa pentsatzera gonbidatuko zaitu. Energia kutsakorrez eta inspiratzen duten soinuez beteriko esperientzia alai, familiarra eta hunkigarria biziko duzu.

Traditions & Tradizioak es un encuentro entre diferentes culturas musicales venidas de Euskadi, otros lugares de Europa, Estados Unidos y el Caribe. El jazz, el blues, el folklore vasco, la percusión afrocubana y los ritmos de otras latitudes, crean en el escenario una fantástica atmósfera de mestizaje de una manera tan natural que podrás recrearte en la sensación de que la música es un verdadero medio alternativo de comunicación, de intercambio de ideas, de conexión entre personas, idiomas, culturas y países.

Los diferentes idiomas se entremezclan con la música y conversan fluidamente, desde el respeto y la empatía, sobre la necesidad de contribuir a la creación de nuevos puentes culturales y de entendimiento. Sentirás que sucede un diálogo fructífero entre diferentes, que invita a pensar en la música como el reflejo vivo de la evolución del espíritu de un país. Vivirás una experiencia alegre, familiar, emotiva llena de energía contagiosa y de sonidos que inspiran.



zinea
CINE

 Auditorium

+ INFO

www.kulturleioa.com

www.cineforumperseo.com

PERSEO ZINEFORUMA CINE FORUM PERSEO

 20:00

€ 2,50

“EKIALDE ERTAINA” ZIKLOA

CICLO “ORIENTE MEDIO”

Urtarrilak 9 enero: “Un héroe”.

Urtarrilak 16 enero: “La traición de Huda”.


Urtarrilak 23 enero: “Foxtrot”.

Urtarrilak 30 enero: “Rebel”.

Otsailak 6-13-20-27 febrero.

Martxoak 5-12-19-26 marzo.

ZINEA CINE

 20:00

€ 5,00 (Día del espectador 4,00)

Urtarrilak 13-14-15 / 27-28-29 enero.

Otsailak 3-4-5 / 24-25-26 febrero.

Martxoak 2-3-4 / 16-17-18 marzo.

HAUR ZINEA CINE INFANTIL

 17:30

€ 4,00

Urtarrilak 13-14 / 27-28 enero.

Otsailak 3-4 / 24-25 febrero.

Martxoak 2-3 / 16-17 marzo.

ZIKLO BEREZIAK CICLOS ESPECIALES

MENDI ASTEA

Otsailak 20-21-22-27 febrero. 19:00 h.

MENDITOUR - MENDI FILM FESTIVAL

Otsailak 28-29 febrero. 19:00 h. 3 €. Bonoa: 5 €.

Karteldegia eta hileko egitaraua kontsultatu
Consultar cartelera y programación mensual



**IZAN ZAITEZ KULTUR LEIOAKO LAGUNA
ETA LORTU 4 SARRERA DOAN**

Hazte Amigo/a de Kultur Leioa y consigue
4 entradas gratis



ERAKUSKETAK EXPOSICIONES

URTARRILAK 12 ENERO - OTSAILAK 12 FEBRERO

ARANTZA SAEZ DE LA FUENTE

EN EL CAMINO

Arantza Saez de Lafuente artista bizkaitar polifazetiko eta diziplina anitzekoa da, eta esperimentazio plastiko etengabea aritzen da lanean. Esperimentazio horretan, natura da ohiko gai adierazgarrienetako bat, baita gizarte- eta ingurumen-helburuekiko kezka ere. Artista honen arte-ibilbidearen garapen-eremua espresionismo abstraktutik informalismo lirikorera doa. Bide plastikoak sortzen ditu bere errealtate emozionalaren metafora gisa, eta bere sentimenduak hainbat arte-diziplinaren bidez transmititzen ditu.

Saez de Lafuentek, instalazio artistiko honetarako, argazki-lanen arloa landu du Bilbaoarte Fundazioaren lantegietako Edizio, Inprimaketa eta Teknologia Berrien lantegian.

EN EL CAMINO

Arantza Saez de Lafuente es una artista polifacética y multidisciplinar vizcaína que trabaja en una continua experimentación plástica, en la que el tema de la naturaleza es una de las constantes más significativas, así como su preocupación por fines sociales y medioambientales. Su recorrido artístico se ha desarrollado en el ámbito desde el expresionismo abstracto al informalismo lírico. Crea sus propios caminos plásticos como metáforas de su realidad emocional, transmitiendo sus sentimientos a través de las diferentes disciplinas artísticas.

Saez de Lafuente ha trabajado para esta instalación artística la parte de las obras fotográficas en el Taller de Edición, Impresión y Nuevas Tecnologías en los talleres de la Fundación Bilbaoarte.





eta gainera
Y ADÉMÁS

ERAKUSKETAK EXPOSICIONES

OTSAILAK 19 FEBRERO - MARTXOAK 17 MARZO

GAILURRETAN IZAN GAITUN. MENDIZALE, ALPINISTA ETA ESKALATZAILE AITZINDARIAK, 1924-2024

NOS QUEREMOS EN LAS CIMAS. MONTAÑERAS, ALPINISTAS Y ESCALADORAS PIONERAS, 1924-2024

MARTXOAK 22 MARZO - MAIATZAK 5 MAYO

FELIX LAREKI

MOMENTOS VI

Felix Larekiren “Momentos VI” erakusketa hogeita sei lanek osatzen dute. Hiri-pintura, argia eta inguruko kontrasteak eta itsasoaren edertasuna dira erakusketa honen hiru zio nagusiak, eta asmoa du egilearen obraren lan adierazgarrienen aukeraketa bat erakustea bisitariari. Felix Larekik, artista sortzaile eta polifazetikoak, bere “Realismo expresionista” obraren aukeraketa bat erakusten du “Momentos VI” lanean, eta nagusiki naturarekiko, espazio irekiekiko eta itsasoarekiko maitasuna islatzen du. Kutsu hiperrealista nabarmena dute hiri-pinturako paisaia batzuk.

MOMENTOS VI

La muestra ‘Momentos VI’ de Félix Lareki, última del ciclo Momentos, está compuesta por veintiséis obras en grandes formatos. La pintura urbana, la luz y los contrastes en su entorno y la belleza del mar son los tres motivos principales de esta exposición que pretende mostrar al visitante una selección de los trabajos más representativos de la obra del autor. Félix Lareki, artista creativo y polifacético, muestra en ‘Momentos VI’ una selección de su obra “realismo expresionista”, que plasma, en su mayoría, su amor por la naturaleza, los espacios abiertos y el mar; en palabras del autor “algunos paisajes de pintura urbana de marcado acento hiperrealista”.



kultur leioa

GUNE IREKIA / ESPACIO ABIERTO

 Auditorium

MARTXOAK 7

ZINEMA KLASIKOAK

Kontserbatorioko ikasleak. 19:30 h. 3 €.



7 MARZO

GRANDES CLÁSICOS DEL CINE

Alumnado Conservatorio. 19:30 h. 3 €.

MARTXOAK 16

CÉSAR UCEDA LEHIAKETA

LEIOA GAZTE INTERPRETATZAILEAK

20:00 h. Gonbidapenarekin. Sari banaketa.



16 MARZO

CERTAMEN CÉSAR UCEDA

LEIOA JÓVENES INTÉRPRETES

20:00 h. Con invitación. Entrega de premios.

DANTZA PLAZA

Urtarrilak 26. Stoa Bulebar.

Otsailak 23. Udondoko Bulebar.

Martxoak 22. Ikea Barri.

20:00 h.



DANTZA PLAZA

26 enero. Stoa Boulevard.

23 febrero. Boulevard Udondo.

22 marzo. Ikea Barri.

20:00 h.



LEHIAKETAK CONCURSOS

SANTA AGEDAÑO XXXIV. KANTU LEHIAKETA

Lehiaketa: otsailak 4.
Sari banaketa: otsailak 10, 12:00 h.
Erakusketa gela.

MAITASUN GUTUNEN XXV. LEHIAKETA

Sari banaketa.
Otsailak 16. 18:30 h.
Hitzaldi aretoa.

“GAZTETAN / CUANDO YO ERA JOVEN...” KONTAKIZUNEN LEHIAKETA

Epe amaiera: apirilak 5.

SAN JUAN JAIETAKO KARTEL LEHIAKETA

Epe amaiera: apirilak 16.

INAUTERIAK

Otsailak 10 eta 13.

XXXIV CONCURSO DE CANTOS DE SANTA AGUEDA

Concurso: 4 febrero.
Entrega de premios: 10 febrero, 12:00 h.
Sala de exposiciones.

XXV CERTAMEN CARTAS DE AMOR

Entrega de premios.
16 febrero. 18:30 h.
Sala de conferencias.

CONCURSO NARRACIONES “GAZTETAN/CUANDO YO ERA JOVEN”

Fin plazo: 5 abril.

CONCURSO CARTELES FIESTAS DE SAN JUAN

Fin plazo: 16 abril.

CARNAVAL

10 y 13 febrero.





eta gainera
Y ADÉMÁS

ATERPE LEIOA GAZTEGUNEA

ASTELEHENETIK OSTIRALERA: 10:00-14:00 / 16:30-19:30

Hartzaileak: 12-30 urte bitarteko gazteak. 2024an 12 urte betetzen dituztenek, urtarillaren 2tik aurrera Gazteguneko erabiltzaile izan daitezke.

gaztegunedigitala.blogspot.com

Aterpe Leioa Gazteguneko blogean programazioa ezagutzeaz gain, izen emateak ere bideratu daitezke.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

gazte@leioa.eus · 94 405 58 50

✉ @GazteguneaLeioa @aterpeleioagaztegunea

GAZTELEKU ZERBITZUA (12-17)

OSTIRALA, LARUNBATA, IGANDEA: 17:00-21:00

12-17 urte bitarteko gazteei zuzenduriko zerbitzua. Ekintzak ostiraletan eta igandeetan burutzen dira 17:00-18:30. Aurreko asteburuetan Gaztelekuan izena emateko aukera dago. Egun berean plaza librerik balego, parte hartu daiteke. Gainontzeko ordutegian erabilera libre.

IKASKETA GELA

ASTELEHENETIK OSTIRALERA: 10:00-14:00 / 16:30-19:30

LARUNBATA, IGANDEA: 9:00-14:00 / 16:30-19:30

Ikasteko gela handi bat bakarkako lana egiteko eta talde-lanak edo etxerako lanak egiteko gela txikiak.

LEIHOSEX – SEXOLOGI AHOLKULARITZA ZERBITZUA

AURREZ AURREKO ARRETA: OSTEGUNERO, 16.30-18:00

leihosex@hotmail.com · 644 725 220

f Servicio Orienta ✉ @sexorienta @sexorienta

ATERPE LEIOA GAZTEGUNEA. GAZTERIA ZERBITZUA

Aldapabarrena 2. 48940 Leioa (Bizkaia)

DE LUNES A VIERNES: 10:00-14:00 / 16:30-19:30

Dirigido a jóvenes de 12-30 años. Los/as que a lo largo de 2024 cumplan 12 años, a partir del 2 de enero podrán ser usuarios/as de Gaztegunea.

gaztegunedigitala.blogspot.com

En el blog de Aterpe Leioa Gaztegunea, podrás conocer la programación y gestionar las inscripciones.

Para más información:

gazte@leioa.eus · 94 405 58 50

✉ @GazteguneaLeioa @aterpeleioagaztegunea

SERVICIO DE GAZTELEKU (12-17)

VIERNES, SÁBADO, DOMINGO: 17:00-21:00

Dirigido a jóvenes de 12 a 17 años.

Actividades (viernes, domingos) 17:00-18:30. Los fines de semana anteriores existe la posibilidad de apuntarse en el Gazteleku. En caso de haber plazas libres el mismo día, se podría participar. El resto del horario uso libre.

AULA DE ESTUDIO

DE LUNES A VIERNES: 10:00-14:00 / 16:30-19:30

SÁBADO, DOMINGO: 9:00-14:00 / 16:30-19:30

Un aula de estudio grande para trabajo individual y aulas pequeñas para hacer deberes o trabajo en grupo.

LEIHOSEX – SERVICIO ASESORAMIENTO SEXOLÓGICO

ATENCIÓN PRESENCIAL: JUEVES, 16:30-18:00

leihosex@hotmail.com · 644 725 220

f Servicio Orienta ✉ @sexorienta @sexorienta

ATERPE LEIOA GAZTEGUNEA. GAZTERIA ZERBITZUA

Aldapabarrena, 2. 48940 Leioa (Bizkaia)



Umore Azoka

XXIV FERIA de ARTISTAS CALLEJEROS de LEIOA

MAIATZAK 16, 17, 18, 19 MAYO 2024





IPUINAREN ORDUA LA HORA DEL CUENTO

18:00. Haur Liburutegia.

- **URTARRILAK 25.** 3-4 urte. Euskaraz. Lupe Lekuona.
- **OTSAILAK 29.** 5-9 urte. Ingelesez. Ana Franco.
- **MARTXOAK 21.** 3-4 urte. Gaztelera. Lupe Lekuona.
- **APIRILAK 25.** 5-9 urte. Euskaraz. Lupe Lekuona.
- **MAIATZAK 30.** 3-4 urte. Euskaraz. Maite Franko.

18:00 h. Biblioteca infantil.

- **25 ENERO.** 3-4 años. Euskera. Lupe Lekuona.
- **29 FEBRERO.** 5-9 años. Inglés. Ana Franco.
- **21 MARZO.** 3-4 años. Castellano. Lupe Lekuona.
- **25 ABRIL.** 5-9 años. Euskera. Lupe Lekuona.
- **30 MAYO.** 3-4 años. Euskera. Maite Franko.

IRAKURKETA KLUBA CLUB DE LECTURA (castellano)

17:30, 19:15. Prentsa gela (4. solairua).
Begoña Ruizek dinamizatuta.

- **LA RIDÍCULA IDEA DE NO VOLVERTE A VER** / Rosa Montero. Urtarrilak 9.
- **CASTILLOS DE CARTÓN** / Almudena Grandes. Otsailak 6.
- **LA FLOR PÚRPURA** / Chimamanda Ngozi Adichie. Martxoak 5.
- **LA EDAD DEL CONSUELO** / Jane Smiley. Apirilak 9.
- **JENISJOPLIN** / Uxue Alberdi (bertan egongo da). Maiatzak 7.
- **UNA HISTORIA RIDÍCULA** / Luis Landero. Ekainak 4.

17:30, 19:15 h. Sala de prensa (4ª planta).
Dinamizado por Begoña Ruiz.

- **LA RIDÍCULA IDEA DE NO VOLVERTE A VER** / Rosa Montero. 9 enero.
- **CASTILLOS DE CARTÓN** / Almudena Grandes. 6 febrero.
- **LA FLOR PÚRPURA** / Chimamanda Ngozi Adichie. 5 marzo.
- **LA EDAD DEL CONSUELO** / Jane Smiley. 9 abril.
- **JENISJOPLIN** / Uxue Alberdi (con la presencia de la autora). 7 mayo.
- **UNA HISTORIA RIDÍCULA** / Luis Landero. 4 junio.

IKASTEKO GELA SALA DE ESTUDIO

9:15-20:30 h.
Urtarrilak 6-7, 13-14, 20-21, 27-28.
Otsailak 3-4, 10-11, 17-18.

9:15-20:30 h.
6-7, 13-14, 20-21, 27-28 enero.
3-4, 10-11, 17-18 febrero.

IRAKURKETA KLUBA CLUB DE LECTURA (castellano)

Adimen emozionalari buruzko irakurketa kluba. Giovanni Pecorarako dinamizatuta. 17:00, 19:15. Prentsa gelan.

- **SUPERPODERES DEL ÉXITO PARA GENTE NORMAL** / Mago More. Urtarrilak 25. 17:00.
- **EL PODER DEL AHORA** / Eckhart Tolle. Urtarrilak 25. 19:15.
- **EL HOMBRE EN BUSCA DE SENTIDO** / Viktor Frankl. Otsailak 29. 17:00.
- **UNA BUENA VIDA** / Robert Waldinger, Marc Schulz. Otsailak 29. 19:15.
- **POR SI LAS VOCES VUELVEN** / Ángel Martín. Martxoak 21. 17:00, 19:15.
- **EL CAMINO DE LA ESPIRITUALIDAD** / Jorge Bucay. Apirilak 25. 17:00.
- **EL HUMOR DE MI VIDA** / Paz Padilla. Maiatzak 30. 17:00.
- **MARAVILLOSAMENTE IMPERFECTO** / Walter Riso. Ekainak 20. 17:00.

Club de lectura sobre inteligencia emocional. Dinamizado por Giovanni Pecoraro. 17:00, 19:15. Sala de prensa.

- **SUPERPODERES DEL ÉXITO PARA GENTE NORMAL** / Mago More. 25 enero. 17:00.
- **EL PODER DEL AHORA** / Eckhart Tolle. 25 enero. 19:15.
- **EL HOMBRE EN BUSCA DE SENTIDO** / Viktor Frankl. 29 febrero. 17:00.
- **UNA BUENA VIDA** / Robert Waldinger, Marc Schulz. 29 febrero. 19:15.
- **POR SI LAS VOCES VUELVEN** / Ángel Martín. 21 marzo. 17:00, 19:15.
- **EL CAMINO DE LA ESPIRITUALIDAD** / Jorge Bucay. 25 abril. 17:00.
- **EL HUMOR DE MI VIDA** / Paz Padilla. 30 mayo. 17:00.
- **MARAVILLOSAMENTE IMPERFECTO** / Walter Riso. 20 junio. 17:00.

IRAKURKETA KLUBA CLUB DE LECTURA (euskaraz)

18:30. 5. solairuan - 5. gelan.
Yurre Ugartek dinamizatuta.

- **HARAGIZKO ERREFORMAK** / Mari Luz Esteban. Urtarrilak 23.
- **DALLOWAY ANDREA** / Virginia Woolf. Otsailak 20.
- **ITZALEN DISTIRA** / Arrate Egaña (badator idazlea). Martxoak 19.
- **DESERTUAN BEHATXULOLOA** / Anjel Lertxundi. Apirilak 23.
- **PASIO HUTSA** / Annie Ernaux. Maiatzak 21.
- **MOIO** / Kattalin Miner. Ekainak 18.

18:30. 5ª planta - Taller 5.
Dinamizado por Yurre Ugarte.

- **HARAGIZKO ERREFORMAK** / Mari Luz Esteban. 23. enero.
- **DALLOWAY ANDREA** / Virginia Woolf. 20 febrero.
- **ITZALEN DISTIRA** / Arrate Egaña (con la presencia de la autora). 19 marzo.
- **DESERTUAN BEHATXULOLOA** / Anjel Lertxundi. 23 abril.
- **PASIO HUTSA** / Annie Ernaux. 21 mayo.
- **MOIO** / Kattalin Miner. 18 junio.

IRAKURKETA KLUBA CLUB DE LECTURA (umeak)

Galtzagorri Elkarte. Haur liburutegian.
Urtarrilak 18. Otsailak 15. Martxoak 14. Apirilak 18. Maiatzak 16. Ekainak 13.
17:30. 3-5 urte. // 18:30. 6-8 urte.

Galtzagorri Elkarte. Biblioteca infantil.
18 enero. 15 febrero. 14 marzo. 18 abril. 16 mayo. 13 junio.
17:30. 3-5 años. // 18:30. 6-8 años.

ZEREN ZAIN ZAUDE? NO LO DUDES Y COMPRA YA TUS ENTRADAS

SARREREN PREZIOA

ANTZERKIA	6-12 €
DANTZA	10 €
MUSIKA	10-12 €
FAMILIARRAK	6 €

AURRETIAZKO SALMENTA (KL lagunik ez)

10 egun lehenago, gutxienez %15

BEHERAPEN BEREZIAK

BAZKIDEENTZAKO ESKAINTZA BEREZIA

%40ko beherapena sarrerak urtarrilaren 8a (barne) baino lehen erosiz gero.

TALDEENTZAT

10 lagun edo gehiago	%25
30 lagun edo gehiago	%35
50 lagun edo gehiago	%50



ORDU GAZTEA

Sarrerak 3 eurotan 30 urte beherakoentzat emaldia hasi baino 30 minutu lehenago (ikuskizun familiarak ezik).

KULTUR LAGUNENTZAKO DOAKO IKUSKIZUNA

Doako sarrera hurrengo ikuskizunetako batean (bat aukeratu):

- GORBEIA, Gontzal Mendibil eta Iñaki García Uribe (musika), urtarrilak 26.
- TIERRA DE NADIE, Doos Colectivo (dantza), martxoak 15.

“FAMILIAREKIN ANTZOKIRA”

Familia ikuskizun bererako hiru sarrera erosiz gero, laugarrena doan.

DESKONTUAK EZ DIRA BATA BESTEAREKIN GEHITZEN

PRECIOS DE ENTRADAS

TEATRO	6-12 €
DANZA	10 €
MÚSICA	10-12 €
FAMILIARES	6 €

VENTA ANTICIPADA (no aplicable a socios/as)

Hasta 10 días antes 15%

DESCUENTOS ESPECIALES

PROMOCIÓN ESPECIAL PARA SOCIOS/AS

Descuento del 40% para compra de entradas antes del 8 de enero (incluido).

GRUPOS

10 personas o más	25%
30 personas o más	35%
50 personas o más	50%



HORA JOVEN

Entradas a 3 euros para menores de 30 años, media hora antes de inicio del espectáculo (excepto los espectáculos familiares).

ESPECTÁCULO GRATUITO PARA SOCIOS/AS KULTUR LAGUN

Entrada gratuita en uno de estos espectáculos (a elegir):

- GORBEIA. Gontzal Mendibil eta Iñaki García Uribe (música), 26 enero.
- TIERRA DE NADIE. Doos Colectivo (danza), 15 marzo.

“AL TEATRO EN FAMILIA”

Si compras 3 entradas para el mismo espectáculo familiar, la 4ª te sale gratis.

DESCUENTOS NO ACUMULABLES ENTRE SÍ




26 URTARRILA
ENERO

Auditorium // 20:30



GORBEIA

Gontzal Mendibil eta Iñaki García Uribe (Euskadi)



15 MARTXOA
MARZO

Auditorium // 20:30



TIERRA DE NADIE

Doos Colectivo (Euskadi)

Kultur Lagun izanda, hauetako ikuskizun bat aukeratu eta doan izango duzu.
Honetaz gain, sarrerak urtarrilak 8 (barne) baino lehen erosterakoan, %40ko deskontua izango duzu.

Si eres Amigo/a Kultur, un espectáculo gratuito a elegir
y 40% de descuento al comprar entradas antes del 8 de enero (incluido).

+ Info: 94 607 25 70



KL LAGUNA IZAN

Kultur Leioan kulturarekiko grinak batzen gaitu eta adin eta zaletasun desberdinak ditugunez, bilatzen duzuna hemen aurkituko duzu.

Kultur Lagun izan ezker %25eko deskontua izango duzu arte eszeniko eta musika ikuskizunetan. Honez gain, egitarauen aurrerapenak eta Kultur Leioako agenda zure etxean jasoko dituzu.

HAUR TXARTELA (0-13 urte)

Urtean **10,20 €**. Haur zinemarako **2 gonbidapen**.

GAZTE TXARTELA (14-26 urte)

Urtean **15,30 €**. Zinemarako **4 sarrera**.

TXARTEL ARRUNTA (27-64 urte)

Urtean **30,60 €**. Ikuskizun gomendatueterako **2 gonbidapen** eta zinemarako **4 sarrera**.

NAGUSI TXARTELA (65 urtetik aurrera)

Urtean **20,40 €**. Ikuskizun gomendatueterako **2 gonbidapen** eta zinemarako **4 sarrera**.

Kultur Leioa Lagun Txartel honi esker Euskadiko Antzoki Sarean deskontuak izango dituzu baita Kultur Leioako hainbat ekintza eta programetan ere.

*En **Kultur Leioa** nos une la pasión por la Cultura y como tenemos edades y gustos diferentes, aquí encontrarás lo que buscas.*

*Benefíciate de un **25% de descuento** en los espectáculos de artes escénicas y música y recibe los avances de programación y la agenda cultural en tu casa.*

CARNET INFANTIL (0-13 años)

10,20 €/año. **2 entradas** de cine infantil.

CARNET JOVEN (14-26 años)

15,30 €/año. **4 entradas** de cine.

CARNET GENERAL (27-64 años)

30,60 €/año. **2 invitaciones** para espectáculos recomendados y **4 entradas** de cine.

CARNET NAGUSI (a partir de 65 años)

20,40 €/año. **2 invitaciones** para espectáculos recomendados y **4 entradas** de cine.

Además, el carnet Amig@ de Kultur Leioa te ofrece descuentos en la Red Vasca de Teatros Sarea y en otras actividades y programas de Kultur Leioa



KULTUR LEIOA

Jose Ramon Aketxe plaza 11
48940 LEIOA (Bizkaia)

Tel: 94 607 25 70
Fax: 94 607 25 71

infokultur@leioa.eus
www.kulturleioa.com
www.leioa.eus



NOLA IRITSI CÓMO LLEGAR

Bizkaibus: Parada 0012 geltokia - Elexalde
(Auzo etxea / Centro Cívico)
Metro Bilbao: Parada Leioa geltokia
* Radio Taxi Leioa: 94 491 53 53

GPS KOORDENATUAK COORDENADAS GPS

43°33'01.64" N
-2°98'49.03" O



SARREREN SALMENTA VENTA DE ENTRADAS

www.kulturleioa.com
www.kutxabank.es

Txarteldegian:

Astelehenetik ostiralera, 11:00-13:30 / 16:30-20:30.
Asteburu eta jai egunetan emanaldia hasi baino
ordu bat lehenago. Ikuskizuna hasi baino 20 minutu
lehenago egun horretako ikuskizunerako sarrerak
soilik salduko dira.

Taquilla:

De lunes a viernes, 11:00-13:30 / 16:30-20:30.
Fines de semana y festivos desde una hora antes
de la función. 20 minutos antes del comienzo de la
función, sólo se venderán entradas de la función
del día.



ERABILERRAZTASUNA

Kultur Leioak mugikortasun murriztua duten
pertonentzat instalazio egokituak ditu.

ACCESIBILIDAD

Kultur Leioa dispone de instalaciones y accesos
adaptados para personas con movilidad reducida.



Jose Ramon Aketxe Plaza, 11
48940 LEIOA (Bizkaia)
tel. 94 607 25 70
faxa 94 607 25 71

www.kulturleioa.com
infokultur@leioa.eus

LAGUNTZAILEAK COLABORAN

